

Gu ere bisitarik gabe

**Miren Azkarate
Badiola**

Gutako askorentzat sarri uda izaten da munduaren beste puntan, urruti ditugun senide eta lagunak bisitatzeko urtaroa. Ez beti; batzuetan Aste Santuko oporraldian, Gabonetako egun horietan edo gure lantokiek oporrak ematen dizkiguten egunean joaten gara haiengana. Gehienetan, baina, opor egun gehien dugun garaia pasa berri dugun uda da eta egun horiek baliatzen ditugu harainoko bidaia oparoa edo emankorra izan dadin.

Baina aurtengo uda ez da orain arte ezagututakoak bezalakoa izan eta covid-19ak bidaia ezinik utzi gaitu. Ondorioz, ezin izan dugu hegazkina hartu eta ozea-

no oso bat gurutzatu hainbeste egun besarkatu gabeko maitearengana iristeko.

Ez da nire kasua izan, aurten ez bainuen Kubara aita bisitatzera joateko asmorik. Baina uda honetan aita Mexikon iheslari duen lagun batekin egon nintzen eta hark bazuen bisitan joateko asmoa. Otsailean erosi zituen hegazkin txartelak, bikotekidearentzat, urtebeteko haurarentzat eta beretzat, baina egun batzuk lehenago airelineak hegaldia bertan behera utzi zuela jakinarazi zien; gaitz erdi, dirua itzuliko zieten. Baina bere aita biloba lehen aldiz aurrez aurre ikusi gabe eta duela hiru urtetik ikusi ez duen alaba besarkatu gabe geratu da, edo alderantziz

ere konta genezake istorioa, haurrak ez duela bere aitona ezagutzerik izan, ez eta alabak aita besarkatzerik ere. Okerrena da ez dakigula turismoa egitera ez goazentzako mugak noiz irekiko dituzten herrialde haiekin.

Horrelako bidaia bat antolatzen hilabete asko igarotzen ditugu, duela urte bat, bi edo gehiago ikusi ez dugun senidea bisitatzera joateko; datak erabaki (beti ez dugu oporrik edo dirurik), hegazkin txartelak lortu, buru-gorputzak prestatu, paketeak osatu (ez dakit zeinengana joan senidearentzako sagardo botila baten bila, medikamentu bila...). Aurten ez da iritsi paketea eramaten duen bisitaririk. •

Inoiz baino gehiago

Antton Izagirre

Maiz entzun ditugu azkenaldian, gure inguru zabalean, dena galduta dagoela dioten mezu apokaliptikoak: «Ez dago zer egirik». «Kontrolatuta gaude». «Nahieran erabiltzen gaituzte». «Gure pentsatzeko gaitasuna ere erabat moldatu digute eta, hori gutxi balitz, orain maskara erabili behar derrigor, hitza ere ukatu digute!».

Sistemak nahi zuena lortu omen du birus ikusezin baten aitzakian. Gure herriko kaleetatik desagerrarazi omen dituzte pentsiodunen aldarrikapenak, burujabetzaren aldeko aldarriak, askatasun eta eskubide zibilen aldeko borrokak, lan eta eskubide sozialen errebindikazioak. Halako analisi zalantzagabeak, zertarako eta ideia horiei jiraka hasierako puntu berera itzul-

tzeko; hau da, dena egina dagoen usteari biraka jarraitzeko. Horrelako arrazonamenduen aurrean batek ez du jakiten zer jokabide hartu: ondoan jesarri eta ildo beretik etsipenaren diskurtsoan murgildu ala abiapuntutik bertatik uko egin ikuspegi mugatuko hitz-jarioari. Zalantza dugu horrelako jarreraren atzean ez ote dagoen erabateko konformidadea, dena kanpotik baldintzatua dagoenez, ezer egin gabe jarraitzeko; etsipena baino gehiago, konplazentzia.

Ezin ukatu azken garaiotako baldintza indibidual eta kolektiboek asko mugatu dutela orain arteko kaleko jardun sozial eta politikoa, norbanakokoen baldintza pertsonalek, psikologikoek eragina dutela ekimen kolektiboan, lehentasunak aldatu

egiten direla, baina benetako galbidea litzateke pandemia honi, eragindako kalteen artean, gure pentsamendua, balioak eta helburu estrategikoak eraldatzeko gaitasuna aitortuko bagenio.

Norbaitek justifika lezake EAJ-PSEren gobernu akordioan erabakitzeko eskubideaz egindako saldukeria, pandemia garai honek eskatzen duenaren neurriko erantzun modura? Ez, birusa ez da arazoa, borondate politiko eza baizik. Aurreko borroka eta aldarrikapenetan konprometitua egon denaren jarrera eta borondatea ezin dira etsipena edo konplazimendua izan. Garai aldrebesotara jardun eta borrokak moldatu beharko ditugu, baina ez pentsaera, nahia eta borondatea galdu. Orain, inoiz baino gehiago. •